

2. BALIOA

Gure produktua hainbat onura ekar diezaioke erosleari.

Alde batetik, erosotasuna eta prestazio berriak eskaintzen ditu, merkatuan oraindik ez daudenak.

Ile-lehorgailua bere egunerokoan erabiltzen duen edonork badaki honek hainbat abantaila eta desabantaila dituela. Baina, gure produktuari esker bakarrik abantailak dituen ile-lehorgailua sortu dugu. Ile-lehorgailu normal bat erabiltzerakoan, beti honen zarata desatzegina jasan behar dugu eta hori gutxi balitz bezala, kable gogaikarria badauka ere. Azken honek, ez dizu erabateko askatasunarekin mugitzea uzten, eta gainera beti entxufe baten beharra eskaintzen dizu. Baina dena ile-lehorgailua erabiltzearen azkartasunagatik izan dadila.

Gure lehorgailuarekin, ordea, ilea idortzen ari zaren bitartean nahi duzun musika entzun ahal duzu, oso modu erresean gainera, bakarrik zure mugikorra bluetooth-en bidez ile-lehorgailura konektatu eta zuk erabaki zein abestirekin sikatu nahi duzun ilea. Hortaz gain, nahi duzun lekuan egin ahalko duzu, izan ere, ez duzu entxufe baten beharra izango Hear-dryer erabili ahal izateko. Soilik, bateria kargatuta izatearekin nahikoa izango duzu. Mendian, hondartzan edota entxufe guztiak okupatutak dauden leku batean lehortu ahalko duzu zure ilea, musika entzuten duzun bitartean, lasaitasun osoz.

Bestetik, gure produktuak orain merkatuan dauden ile-lehorgailu hoberenetarikoen ezaugarriak badauzka. Hasteko, 1600W-ko potentzia dauka eta iragazki erauzkorra, erraztasunez garbitu ahal izateko. "Antishock" den plastiko birziklatu batetaz egina dago, ez dadila apurtu edo marratu kolpe bat jasatekotan. Teknologia ionikoa dauka ere, gure ileari distira eta leuntasun gehiago emateko. Honez gain, pisu askorik ez dauka, 815g pisatzen du eta, hau laguntzen du ekintza hain nekea ez bihurtzen. Hainbat osagarri dauzka ere, magnetikoak eta birakariak direnak: leuntze-pita, orrazketa-kontzentratzailea, difusorea, biltegi-irratze-esekidura eta bero ez-labaingarriko estera. Azkenik, hiru-abiadura ezberdin dauzka: azkarra, erregularra eta leuna. Eta 4 tenperatura desberdin: 100°C-koa, 80°C-koa, 60°C-koa eta etengabeko hotza.